


# Sin **i** juridikoa



S  
i  
n  
d  
i  
k  
a  
|  
H  
e  
z  
i  
k  
e  
t  
a

6.

## Langabeziak duen babesak

**LAB**  
Hezkuntza

ZA  
BAL  
TZEN

Zbkia

SLK 00024

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA



**6.**

**Langabeziak  
duen  
babesa.**

## 6. Langabeziak duen babesa.

# Ereduaren programazioa eta helburuak

Modulu hau jardunaldi batean burutuko da. Liburuska hau aldez aurretik irakurrita ukan behar da eta berari buruzko eztabaidan ere aktiboki parte hartu behar da zalantzak, ezberdintasunak eta abar planteatuta.

### Modulu honen helburua, gauza hauek ezagutzea da:

- Ematen diren prestazio-motak
- Tramitazioa, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentuak
- Bateriaezintasunak eta iraungipenaren kausak
- Lege-hausteak eta zehapenak

Redactores: **Joxean Lozano (Abogado).**

**Txema Mugire (Graduado Social).**

ipar·hegoa



6.

juridikoa

SINDIKAL HEZIKETA

## Langabeziak duen babesa.

### Sarrera.

#### Ekarpen mailako prestazioa.

- Onuradun jaun/andreak.
- Baldintzak.
- Iraupena.
- Kopurua.

#### Laguntza prestazioak.

- 52 urtatik gorakoen sorospena.
- Ekarpen-prestazioa amaitu osteko sorospena.
  - 120 egun baino gehiagoko eta 180 egun baino gutxiagoko prestazio amaituta duten familiadun 45 urtetik gorakoentzat.
  - 180 egun baino gehiagoko prestazioa animatuta duten familia dun 45 urtetik gorakoentzat.
  - 720 eguneko prestazioa amaituta duten 45 urtetik gorakoentzat.
  - 360 egun baino gehiagoko prestazioa amaituta duten familiarik gabeko 45 urtetik gorakoentzat.
  - 180 egun baino gehiagoko prestazioa amaituta duten familia dun 45 urtetik beherakoentzat.
  - Denboraldi luzeagoan zein laburragoan, baina prestazioa amaiturik duten gainerako guztientzat.
- Ekarpen prestaziorako eskubiderik ez dutenen sorospena.
- Gartzelatik irtendakoen sorospena.
- Itzuli diren migrarien sorospena.
- Elbarritasunaren berrikusketa kasuko sorospena.
- Finko ez-jarritu jaun/andreen sorospena.

#### Prestazio hauen araubidea.

- Tramitazioa.
- Etendura.
- Iraungipena.
- Bateraezintzunak.
- Lege-hausteak eta zehapenak.

#### ERANSKINA:

Langabeziak duen babesa arautzen duen indarreko arautegia.

## 6. Langabeziak duen babesari.

Konstituzio (EK) eta Langileen Estatututik (LT) hasita, lan-arau guztiak ekonomia-talde handien interesentzat funtsezko diren helburuen mesederako onartu dira: gastu publikoaren txikiapena, eskulanaren erabide librea (malgutasuna), produktibitatearen gehikuntza eta eskulanaren kostuaren txikiapena.

1980ko urriko Enpleguaren Oinarriko Legeak (EOL) funtsezko mugarri bat inauratu eta markatu zuen (langabeziak duen babesari dagokionez) aipatu helburu horien ildotik: prestazioetarako sarbidea gogortu du, babesaren izaera mugagabea desagertu da eta langabezia hartzen dutenak ia-ia kriminalizatzeko lasterketa ero bati eman dio hasiera (maularen kontrola, zehapenak, ...). Langabeziak duen Babesari buruzko abuztuko 1984/31 Legeak eta apirilko 1985/625 Errege Dekretuak ildo berdinetan sakontzen dute eta prestazioen kopurua oraindik gehiago mozten; 1992/22 eta 1993/22 legeek gauza bera egiten dute. Eta azkenez 1994an (1994ko abenduko 41 eta 42 legeak) langabeziaren araudi osoaren aldaketa eta gaizkiagotze berri bat ematen da urte bereko maiatzeko lan-erreformaren testuinguruan. Oraindik, UGT/CCOOren eta ugazaberia nagusiaren arteko gizarte-itunak, behintzat, zertan amaituko diren ikustea ere geratzen zaigu.

Lege-jauzi eta legeolde hauekin, langabeziak duen babesari, aldi bateko kontratazioa (batez ere zatizkoa) bortizki aplikatzeko osagarri paregabea bilakatu da, Hego Euskal Herriko industri eraispena erraztuta (untzigintza, siderurgi eta altzairugintzaren birmoldaketak, linea zuria, portu-zamaketariak, ...) eta, gainera, gastu publikoaren hazkundea blokearaztea lortuta. 1980ko praktikan gastu-bolumen berdinarekin, langabetu bi aldiz gehiago baino gehiagori lagundu zaio urte hauetan. Bistakoa denez, PSOEek eta PPK, eta biek beti PNV eta CIUren laguntzaz, hau ez dezagun ahantz, batek bestearen ostean bota dizkiguten pellokirtenen pepelerdoke-riak, lanpostu alternatiboak sortu, desenplegua gutxitu eta mila ahoberokeria aginduta, gezur, faltsukeria eta zekenkerien gines-liburuan idatzirik geratu dira.

Liburuska honek, bada, langabeziak duen babesari buruzko gaurko legeria azalduz, biziraupenaren alde eta gure etorkizuna herri eta klase bezala itotzen ari den gizartearen aldaketaren alde daramagun borroka bikoitzaren tresna bat izan nahi du.

# Ekarpen mailako prestazioa

INEMek bi prestazio-mota ematen ditu: bata, ekarpen-mailakoa (G.S.ri egindako kotizazio-aldi eta kopuruaren edo "ekarpenaren" soilik araberakoa dena) eta bestea, laguntza-mailakoa (kotizazio-aldi eta kopuruak bakarrik baldintzatu eta xedaturik ez dagoena). Orain ekarpen mailako prestazioa ikusiko dugu eta hurrengo atalean sorospen edo laguntza-prestazioa deitua.

Ekarpen-mailako prestazioari LANGABEZIAK DUEN PRESTAZIOA deitu ohi zaio eta denbora aldi batetako edo betirako bere lana galtzen duenari edo bere laneguna 1/3an gutxienez laburtzen zaionari ematen zaie, baldin behar den beste lan-aldi kotizaturik badu, geroago zehaztuko dugun bezala.

Beraz, langabeziak duen prestazioa bi modalitatekoa izan daiteke:

• **Osoa** (edozein arrazoigatik enpresan lanik gabe betirako utzi dutelako edo lanegun osoan egon diren finko ez-jarraitu jaun/andre-en jarduera amaitu delako).

• **Ez-osoa** (ekonomia-arrazoiak direla medio, kontratuaren etendura edo lanegun-txikipena gertatu delako edo egun/zatiz egotearren).

## Onuradun jaun/andreak

A.- Enplegua galdu edo laneguna laburtu zaizkien soldatapeko lagun edo inoren konturako langile guztiak, hala Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean



egon nola langabeziarako kotizatzen duten araubide edo egoera berezietan egon.

B.- Gartzelatik irten direnak, hala zigorra beteta nola baldintzazko askatasunean.

C.- Itzultzen diren migragiak.

## Baldintzak

Baldintza hauek aldi berean eduki behar dira: altan egon, kotizazio-aldi jakin bat bete, legezko langabezia-egoeran egon eta jubilaziorako adin normalik ukan ez.

Alokairupekoak. Besteren kontura diharduten alokairupeko guztiek langabezi-saria izateko eskubidea dute.

## 6. Langabeziak duen babesa.

Orain banan-banan ikusiko dugu horietariko bakoitza.

• **Afiliaturik eta alta-egoe-ran edo altaren parekide dene-an egotea.**

• **Langabezia egon eta le-gezko langabezia-egoeretari-ko bat dela egiaztatzea:**

A. - Lan-harremanaren etendu-  
ra dela, zer hauetariko bat eman  
delako:

- Iraispen Kolektiboa, LEko  
51. art. (lehen Enplegu Araupeke-  
taren Espedientea, EAE), horretar-  
ako baimena ematen duen lan-  
agintaritzaren ebazpen egokia-  
rekin egiaztatuta.

- Enpresari jaun/andre baka-  
rraren heriotza, jubilazioa edo  
ezintasuna, LEko 49. art., enpresak  
inguruabar horren eta bere ondo-  
rio-dataren berri idatziz emanda-  
ko derrigorrezko jakinarazpena-  
rekin egiaztatuta.

- Bidegabeko iraispena, LEko  
56. art., dagokion Adiskidetzak Ak-  
taren bidez edo iraispenaren bide-  
gabetasuna aitortzen duen epaia-  
ren bidez egiaztatuta; honi gehitu  
beharko zaio enpresak ez berro-  
nartzeko aukera hautatu duela. Or-  
dezkar baldin bada eta indemni-  
zazioaren aldeko aukera egin ba-  
du, ez dago langabeziarako esku-  
biderik.

- Bidezko iraispena, hori ai-  
tortzen duen epaiaren bidez  
egiaztatuta.

- Kausa objektiboengatik  
iraispena, LEko 53. artikulua ai-  
patzen dituen hitzmugetan enpre-  
sak idatzitako jakinarazpenaren  
bidez egiaztatuta.

- Langile jaun/andrearen Guz-

tizko Elbarritasun Iraunkorra, GSINk  
aipatu ezintasun hori duela aitortzen  
emandako ebazpenaren arabera  
enpresariak lan-harremana irau-  
ngitzen idatziz egindako jakinaraz-  
penarekin egiaztatuko dena.

- Proba-aldiaren amaiera, en-  
presak idatziz egindako jakinaraz-  
penarekin egiaztatuko dena, bal-  
din lan-harreman hori amaitu ez  
bada langile jaun/andrearen dimi-  
sioz edo borondatezko bazar.

- Aldi bateko kontratuaren bu-  
kaera, enpresak idatziz egindako  
jakinarazpenarekin eta aldi bateko  
kontratuaren kopiarekin egiaztatu-  
ko dena.

- Lan-harremanaren suntsia-  
razpena enpresariaren ez-betetze  
astunagatik (LEko 50. art.), aipatu  
suntsiarazpena baimentzen duen  
epaiaren bidez egiaztatuko dena.

- Kontratua iraingitzearen al-  
deko aukera (LEko 40. art.) lekual-  
daketa erabakiaren aurrean  
egina, enpresariak hartutako le-  
kualdaketa-erabakiaren eta langi-  
le jaun/andreak egindako irau-  
ngipenaren aldeko aukeraren ziruta-  
giriaren bidez egiaztatu daitekeena.

- Kontratua iraingitzearen al-  
deko aukera (LEko 41.3 art.) lan-  
baldintzak funtsean aldatzeko era-  
bakiaren aurrean egin, enpresa-  
riak hartutako aldakuntza-eraba-  
kia eta langile jaun/andreak egin-  
dako iraingipenaren aldeko auke-  
ra zirutagiriaren bidez egiaztatu  
daitekeena.

- Administrazio-harreman-  
aren iraingipena (Administra-  
zioa), zerbitzuak prestatzen zituen  
Administrazioaren ziurtagiriaren  
bidez egiaztatu daitekeena.

B.- Langabezi egoeran, iraungipenetik ezberdin diren beste arrazoi batzuegatik dagoela:

- Ekonomia arazoiek eta gainerako enpresa-premiekin eragindako lan-harremanaren aldi bateko etendura (L.Eko 47. art.), lan-agintaritzaren ebazpenak egiazta daitezkeen.

- Laneguna 1/3an gutxienez aldi batean laburtzea legez ezar daitezkeen kausengatik.

- Aldizkako jarduera edo denboraldia bukatzea izaera ez-jarraituko finko jaun/andreen lan-harremanean, izaera finko ez-jarraituko kontratuaren kopiarekin egiaztatuko dena; horri gehitu beharko zaio aldizkako jardueraren edo denboraldiaren aipatu bukatzearen berri ematen enpresak idatziz egindako jakinarazpena.

- Espetxeratu jaun/andreek zigorra betetzea edo baldintzazko askatasuna lortzea, Gartzelako Zuzendariaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dena (gartzelako sarrera eta irteera-datak konstarazita) eta, kasua denean, gartzelan egindako kotizazioen ziurtagiria erantsi beharko da.

- Atzerrian lan-harremana iraungi zaizkien langile migrari jaun/andreen itzulera, Emigrazio Unitatearen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dena (itzulera-data, lan egin eta atzerrian kotizaturiko epealdia eta aipatu herrian langabeziak prestaziorako eskubiderik eza konstarazita), baldin aipatu herrian langabeziak dituen prestazioak edo antzekoak lortzen ez baditu eta behar den beste kotizatu duela egiaztatzen badu.



#### • Kotizazio-aldia

Legezko langabezia-egoera egunaren aurreko sei urteen barruan edo kotizatu beharra amaitu zenean, 360 egun gutxienez ordainduta ukaitea. Enpresak kotizazio-kuotak ez ordaintzeak ez du kentzen eskubiderik; beraz, INEMek tokatzen den prestazioa abonatu du. Kotizazio-aldiak ez du segitukoa zertan izan behar, ez eta enpresa berdinekoa ere. Kotizazio-aldiak metatu egiten dira, baldin aipatu aldi horiek prestazioa sortzeko erabiltzen ez badira.

Kotizatutako okupazio-aldia zehazteko ondorioetarako, aurreko eskubidearen aintzatespenerako kontatu ez diren kotizazio guztiak hartuko dira kontuan. HALA EKARPEN MAILAN NOLA LAGUNTZA

Presoak. Hartzela-zigorra betetakoan edo baldintzapeko askatasunean irtetzekotan langabezi-saria eskuratzeke eskubidea dute.

## 6. Langabeziak duen babesa.

MAILAN. Prestazioaren eta sorospenen abonu-aldiari dagozkien kotizazioak ez dira kontatuko.

• **Jubilaziora heltzeko behar den adina bete gabe edukitzea edo jubilaziorako eskubiderik ez ukaitzea, nahiz eta behar den besteko adina ukan.**

### IRAUPENA.

• Iraupena, legezko langabezia-egoeratariko bat gertatzen den dataren edo kotizatu beharra amaitu zen egunaren aurreko azken sei urteetan egindako kotizazio-aldiaren arabera da, hurrengo eskala honi jarrai:

Hotizazio aldia egunetan.	Prestazio aldian egunetan.
360tik 539ra	120
540tik 719ra	180
720tik 899ra	240
900tik 1.079ra	300
1.080tik 1.259ra	360
1.260tik 1.439ra	420
1.440tik 1.619ra	480
1.620tik 1.799ra	540
1.800tik 1.979ra	600
1.980tik 2.159ra	660
2.160tik aurrera	720

Gobernuak informea Kontseiluari aldeztetik emanik alda dezake eskala hau, langabezia-tasaren eta bere finantzaketa-araubideak dituen ahalbideen arabera.

• Prestaziorako eskubidea iraingitzen baldin bada titularrak, aldez aurretik eman zaion langabezia-aldia agortu orduko, hamabihilabeteko edo gehiagoko iraupena duen lana aurkitu duelako, titular horrek lan hori amaitzean aukeratu ahal izango du:

a) Hasierako eskubidea gelditzen zitzaion aldirako berronartzea orduan zegozkion oinarri eta tasekin.

b) Egin dituen kotizazio berriek sorturiko prestazio berria hartzea.

“a” aukera hautatzen baldin bada, “b” prestazioak (hautatu ez duenak) sor zitzakeen kotizazioak EZ dira kontatuko geroko eskubideren bat aintzatesteko.

• Egindako kotizazioak gehituz doaz tarte bakoitzerako seinaturaluriko egun-kopurua lortu arte, baldin batera hurrengo baldintza hauek biltzen baditu:

- Aurreko azkenengo sei urte naturaletan egitea.

- Prestazio edo sorospen bat emateko erabiltzea.

- 360 eguneko edo gehiagoko kotizazio-tarterik (lanarenik) ez egotea.



• Gartzelatik irtendako lagunen edo migrarien langabezia-iraupe-na, gartzelaratze edo atzerrira irte-dataren aurreko lau urteetan egindako kotizazio-aldien arabera erabakiko da.

• Baliozko kotizaziotzat hartuko dira bidegabekotzat edo nulutzat aintzatesten dituen epai edo adizkidetza-ekitaldiarekin egindako iraispenak eragindako tramitazio-soldatei dagozkienak (iraispenaren eraginez lan egitea-

ri utzi zitzaion dataren eta berro-narpen-dataren artean daudenak edo, kasua denean, indemnizazioaren aldeko aukeraren dataren artean daudenak).

• Emandako prestazio-aldia kotizatutzat jotzen da G.S.ren pentsioen ondorioetarako (jubila-zio, elbarritasun, ...), kotizazio-oinarriztat langabeziak duen pres-tazioa kalkulatzeko balio duen oin-arri arautzailearen kopurua har-tuko delarik.

Lanetik-iraitzea. Epaituriko lanetik-iraitzeagatik izapi-de-alokairuak kotizazioak dira.

## 6. Langabeziak duen babesa.

### Kopurua

Aipatu Eguneke Oinarri Arautzaile hau beti biderkatuko da 30ez (INEMen ondorioetarako hilabete guztiek 30 egun baitituzte) edo, prestazioaren hasieran eta amaieran, tokatzen den egun-kopuruz.

Inoiz ere ez da hartuko urte bakoitzean ezarritako Lanbide-arteko Gutxieneke Soldataren (LGS) %100 baino kopuru txikiagoa eta bi paga extra sartuta baldin seme-alabarik bere penztuan badu; seme-alabarik ez badu, orduan ere ezingo da izan %75a baino txikiagoa.

Ezingo da hartu LGS beraren gainean kalkulaturiko azken muga hauek baino kopuru handiagorik:

- LGSren %175a: baldin seme-alabarik ez badu.
- LGSren %195a: baldin seme-alaba bat baino ez badu.
- LGSren %220a: baldin bi seme-alaba edo gehiago badu.

Langabezia ez-osoak duen prestazioaren kasuetan, kopurua lanegunaren laburpenaren proportzioan zehaztuko da.

INEMek zenbateko gordinetik, Espainiako Estatuko gobernuak urtero finkatzen dituen kotizazioak kentzen ditu. Zenbateko gordin hau ere PFEZri loturik dago, nahiz eta normalean honenak tasa txikiagoak izan; tasa hauek ere urtero finkatzen dira.

Tokatzen den prestazioa ordainketa bakar batean hartzeko ahalbidea, interesatua kooperatiba batean edo Sozietate Anonimo Laboral (SAL) batean bazkide gisa sartzen den suposamenduetan baino ez da aplikatzen.

# Laguntza

prestazioak.

Prestazio-mota honi, hau ere INEMek ematen duena, LANGABEZIAK DITUEN SOROSPENAK deitzen zaio.

Hiru sorospen-mota juridiko daude:

-Langabezia normalak duen sorospena.

-52 urtetik gorako langile jaun/andreen langabeziak duen sorospena.

-720 eguneko prestazioa (ekarpenekoa) agortu duten 45 urtetik gorako langile jaun/andreek duten sorospen berezia.

Sorospen hauetarako eskubidea enplegua galdu duten edo laneguna laburtu zaien lagun guztiek dute, hala Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuta egon nola langabeziarako kotizatzen duten araubide edo egoera berezietan sartuta egon (inoren kontura, kooperatibista, administrazioako ordezkari, ... eta beste batzuk).

Sorospen hauek modu ezberdinean eman ohi dira (baldintza ezberdinak, iraupen ezberdina), sorospena ematen zaion taldearen arabera.

Taldeak, hurrengo hauek dira:

A.-52 urtetik gorakoak.


B.-Ekarpen-prestazio motaren bat agortu duen jendea.

C.-Ekarpen-prestaziorako eskubiderik ez duen jendea, 360

eguneko edo gehiagoko kotizaziorik oraindik metatu, ez duelako.

Aztertuz joango garen baldintza horiek (erantzunkizun familiarak eta errentarik eza, batez ere), hala eskabidea egiten den unean nola dagokion sorospena hartzen denean bete behar dira.

Ondoren, talde bakoitzaren ezaugarriak eta talde bakoitzari konkretuan zein sorospen-mota ematen zaion ikusiko dugu.



Sariak 52 urte baino gehiagokoak, baldintza zehatz batzuetan asistentzia-sariak jasotzeko eskubidea dute.

## 6. Langabeziak duen babesa.

### 52 urtetik gorakoen sorospena.

#### A.- Baldintzak:

-52 urte ukaitea ekarpen-prestazioa agortu den datan edo langabezi egoeran dagoen datan nahiz eta une horretan ekarpen-prestaziorako eskubiderik ukan ez, 360 eguneko edo gehiagoko kotizazio metaturik ez duelako.

-Enplegu-eskatzaile bezala inskribaturik egotea eta enplegu-eskaintza egokiari hilabeteko epean ukorik egin gabe egotea.

-Ez dago eratzunkizun familiarik ukan beharrik.

-Langabeziara gutxienez sei urtetan kotizatuta ukaitea lan-bizitza osoan zehar.

-52 urtetik gorakoen sorospen-eskabidea egiten den unean edozein jubilazio-motara iristeko (ez du axola zein araubide, modalitate edo kopurua den) baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzea, adinarena salbu.

-Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %75etik gorako errentarik, dena delakorik eta datorrela datorrenetik, hileko zenbaketan ez ukaitea, ordu extrem portziozko zatia salbu.

#### B.- Iraupena:

Hauek sorospenerako eskubidea daukate, jubilazioko pentsiora bere modalitateetakoren batean

(normala edo aurreratua) iristeko behar den adina lortu arte iraun behar duen denbora guztian.

#### C.- Kopurua:

LGSren %75a.

Hala ere, 720 eguneko ekarpen-prestazio aldia agorturik badute, %75ekoa izango da lehenengo sei hilabeteetako kopurua bere pentzuan familiar bat edo bat ere ez badu, %100ekoa bi familiar baldin baditu eta %125ekoa hiru edo gehiago baditu.

Sorospen honek berarekin dararama jubilazioko pentsiorako kotizazioa emanik ukaitea une bakoitzean indarrean dagoen LGSren zenbateko osoaz.

G.S.ren sistemak, kotizaturiko (lan egindako) azkenengo 365 egunetan kotizatuaren batezbestekoa lortu arte kotizazio-oinarri hau 55 urtetik aurrera HITZARMEN BEREZIAREN bidez hobetzeko ahalbidea aurrikusten du (G.S.ko Zuzendaritza Orokorraren 86-2-12ko Ebazpenak ezarri zuen). Ekarpen-prestaziorako eskubidea iraungi zen edo 55 urte bete ziren egunean hasi eta 90 egunen barruan eskatu behar zaio INSSri edo ISMri. G.S.ri abonatu beharreko kuota garesti ateratzen da, langilearen kuota eta ugazabaren kuota ordaintzera behartzen dutelako eta gainera osoaren gainean (LGS gehi hobekuntza), heriotz eta elbarritasun-kontingentziagatik ere kotizatu behar delako, jubilaziokoaz gain.

## **Ekarpen-prestazio amaitu osteko sorospena.**

**120 egun baino gehiagoko eta 180 egun baino gutxiagoko prestazioa amaituta duten familiadun 45 urtetik gorakoentzat.**

A.-Baldintzak

-Lanik gabe egotea.

-Enplegu-eskatzaille gisa inskribaturik egotea.

-Inskripziotik hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

-Erantzunkizun familiarrak edukitzea: ezkontidea, 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo gehiagoko ezgaituak edo gutxiagoko hartuak bere pentzuan edukitzea, familia-unitateko kide ezberdinen errenten batura, paga extren proportziozko partea kendu ondoren, aipatu kide-kopuruaz zatiturik LGSren %75a baino handiagoa ez denean.

-Langabeziak duen prestazioa (ekarpenezkoa), edozein epealdi-koa, agorturik edukitzea.

B.-Iraupena

Sorospenak gehien ere 24 hilabeteko iraupena du.

C.-Kopurua

Sorospenaren kopurua, LGSren %75a da.

**180 egun baino gehiagoko prestazioa amaituta duten familiadun 45 urtetik gorakoentzat.**

A.-Baldintzak

-Lanik gabe egotea.

-Enplegu-eskatzaille gisa inskribaturik egotea.

-Inskripziotik hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

-Erantzunkizun familiarrak edukitzea: ezkontidea, 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo gehiagoko ezgaituak edo gutxiagoko hartuak bere pentzuan edukitzea, familia-unitateko kide ezberdinen errenten batura, paga extren proportziozko partea kendu ondoren, aipatu kide-kopuruaz zatiturik LGSren %75a baino handiagoa ez denean.

-Langabeziak duen prestazioa (ekarpenezkoa), edozein epealdi-koa, agorturik edukitzea.

B.-Iraupena

Sorospenak gehien ere 30 hilabeteko (bi urte eta erdiko) iraupena du.

C.-Kopurua

Kopurua, LGSren %75a da.

**720 eguneko prestazioa (bi urtekoa) amaituta duten 45 urtetik gorakoentzat.**

A.-Baldintzak

-Lanik gabe egotea.

-45 urte eginda edukitzea ekarpen-prestazioa agortu den datan.

-720 eguneko ekarpen-prestazioa (luzeena, 24 hilabetekoa alegia) agortuta edukitzea.

-LGStik gorako errentarik, dena delakorik eta datorrela dato-

## 6. Langabeziak duen babesa.

rrenetik, ez edukitzea.

- Enplegu-eskatzaille gisa inskribaturik egotea.

- Inskripziotik hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

### B.- Iraupena

Urterdiko sorospen berezia izenekoa ematen zaie eta, hau amaitzean, bi sorospen-mota hauetariko bat hartu ahal izango du:

a) Familia-kargarik baldin badu, urterdiko sorospen bereziaren ostean sorospen normaleko 24 hilabete gehiagorako eskubidea ukanen du (guztira 30 hilabete).

b) Familia-kargarik ez baldin badu, urterdiko sorospen bereziaren ostean sorospen normaleko 6 hilabeteko eskubidea baino ez du ukanen (guztira 12 hilabete).

### C.-Kopurua

Sorospen bereziaren kopurua, familia-kargen arabera dago:

-Bere pentzuan familiar bat edo bat ere ez badu: LGSren %75a.

-Bere pentzuan bi familiar baldin baditu: LGSren %100a.

-Bere pentzuan hiru familiar edo gehiago baditu: LGSren %125a.

Gero, eskubidea eduki dezakeen sorospen normalaren kopurua beti izango da LGSren %75a.

### **360 eguneko edo gehiagoko ekarpen-prestazioa agortu duten erantzunkizunik eta familiarik gabeko 45 urtetik gorakoak.**

A.-Baldintzak

- Lanik gabe egotea.

- Enplegu-eskatzaille gisa inskribaturik egotea.

- Inskripziotik hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

- Agorturik ukaitea 360 egun edo gehiagoko iraupeneko langabeziak duen prestazioa.

B.- Iraupena

Sorospenak urterdi bat baino ez du irauten.

C.- Kopurua

Kopurua, LGSren %75a da.

### **180 eguneko edo gehiagoko ekarpen-prestazioa agortu duten familia-erantzunkizun edo kargadun 45 urtetik beherakoak.**

A.-Baldintzak

-Lanik gabe egotea.

-Enplegu-eskatzaille gisa inskribaturik egotea.



-Inskripziotik hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

-Erantzunkizun familiarak edukitzea: ezkontidea, 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo gehiagoko ezgaituak edo gutxiagoko hartuak bere pentzuan edukitzea, familia-unitateko kide ezberdinen errenten batura, paga extren proportziosko partea kendu ondoren, aipatu kide-kopuruaz zatiturik LGSren %75a baino handiagoa ez denean.

-Langabeziak duen 180 eguneko edo gehiagoko prestazioa (ekarpenezkoa) agorturik edukitzea.

B.- Iraupena

Gehien ere 24 hilabeteko iraupena du.

C.- Kopurua

Kopurua, LGSren %75a da.

### **Ekarpen-prestazioa agortu eta aurretiko ataletariko batean ere sartzen ez den gainerako jendea.**

A.-Baldintzak

-Lanik gabe egotea.

-Enplegu-eskatzaille gisa inskribaturik egotea.

-Inskripziotik hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

-Langabeziak duen prestazioa (ekarpenezkoa) agorturik ukaitzea.

B.-Iraupena

Gehien ere 18 hilabeteko iraupena ukanen du.

C.- Kopurua

Kopurua, LGSren %75a da.

### **Ekarpen-prestaziorik gabeko langile jaun/andreak.**

A.- Baldintzak

•Legezko langabezi egoeran egotea.

•Prestaziorako eskubiderik ez ukaitea, kotizazio-aldia txikiena bete ez duelako, baldin:

a) Gutxienez hiru hilabete kotizatu badira eta familia-erantzunkizunak baditu.

b) Gutxienez sei hilabete kotizatu badira, nahiz eta familia-erantzunkizunik eduki ez.

B.- Iraupena:

a) Langileak familia-erantzunkizunak dituen kasuan:

•3 hileko kotizazioa; 3 hilabete

•4 hileko kotizazioa; 4 hilabete

•5 hileko kotizazioa; 5 hilabete

•6 hilabete edo gehiagoko kotizazioa 21 hilabete

21 hileko iraupena duenean 6 hileko epealdi baterako aintzatesiko zaio, hilabete horiek gehien-gora arte luza daitezkeelarik.

b) Langileak familia-erantzunkizunik ez eta sei hilabete kotizaturik dituen kasuan, sorospeneraren iraupena 6 hilekoa izango da.

Kasu batean eta bestean, sorospenerako eskubidea aintzatesten denean, sorospena sortzeko balio zuten kotizazioak ezingo dira kon-

## 6. Langabeziak duen babesa.

tuan izan ekarpen-mailako prestazioa etorkizunean aintzatesteko.

Hamabi hilabetetik beherako iraupena duen lan bat itxaronaldian onartzeak sorospena eskuratzeko eskubideari ez dio kalterik egiten eta indarrik gabe geratuko da lana amaitu arte.

C.- Kopurua  
Kopurua, LGSren %75a da.

### **Gartzeletatik irten direnak.**

A.-Baldintzak  
- Lanik gabe egotea.  
- Ekarpen-prestaziorako esku-biderik ez ukaitea.

- Gartzelatik (hala zigorra beta nola baldintzazko askatasunean) irten den datatik hilabeteko epean enplegu-eskatzaille gisa inskribatzea.

- Inskripziotik hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

- LGStik gorako errentarik, dena delakorik eta datorrela datorretetik, ez edukitzea (ez da eskatzen familia-kargen baldintza).

- Askatasun-gabetzeak sei hilabetetik gorako iraupena ukaitea.

B.- Iraupena  
6 hilabeteko iraupena, baina iraupen berdineko bi epealditan luzatu ahal izango da, 18 hileko gehiengora arte.

C.- Kopurua  
Kopurua, LGSren %75a izango da.

### **Itzuli diren migrariak.**

A.-Baldintzak

- Lanik gabe egotea, baina Espainiako Estatutik azkenenez irten zenetik atzerrian gutxienez sei hiletan lan eginda egotea.

- Ekarpen-prestaziorako esku-biderik ez ukaitea.

- Enplegu-eskatzaille gisa inskribaturik egotea eta langabeziak duen prestazioa agortu zitzaionetik hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

- LGStik gorako errentarik, dena delakorik eta datorrela datorretetik, ez edukitzea (ez da eskatzen familia-kargen baldintza).

B.- Iraupena


Sei hilabeterako eskubidea ukanen da, baina iraupen berdineko bi epealditan luzatu ahal izango da, 18 hileko gehiengora arte.

C.- Kopurua

Kopurua, LGSren %75a izango da.

### **Elbarritasunen berrikusketak.**

Aldez aurretik aintzatetsiriko guztizko edo erabateko elbarritasun iraukorretik edo elbarritasun larritik hobetu delako berrikusketaren ondorioz lanerako gauza edo gai aitortuak izan direnek ere badute sorospenerako eskubidea.



Berrikusketaren ostean normalean bat ezin da lanera itzuli (eskubidea du, baina ez da berronartua izaten; ez du antzatsirik berro-nartua izateko eskubidea, e.a. ...).

A.- aldintzak

- Lanik gabe egotea.

- Elbarritasun iraukorraren berrikusketa-espedientearen ebazpenaren jakinarazpen-datatik edo, kasua denean, ez-berro-nartzetik hilabeteko epean enplegu-eskatzaille gisa inskribatzea.

- Inskripziotik hilabeteko epe-

an enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

- LGStik gorako errentarik, dena delakorik eta datorrela datorretetik, ez edukitzea (ez da eskatzen familia-kargen baldintza).

B.- Iraupena

Sei hilekoa baina iraupen berdineko bi epealditan luzatu ahal izango da, 18 hileko gehiengora arte.

C.- Kopurua

Kopurua, LGSren %75a izango da.

Minusbalotasuna.

Minusbalotasunagatiko azterketa eskatzeko, enplegu eskatzaille gisa erregistratuta egon behar da.

## 6. Langabeziak duen babesa.

### **Finko ez jarraitu jaun/andreen sorospena.**

A.-Baldintzak

-Lanik gabe egotea.

-Enplegu-eskatzaille gisa inskribaturik egotea eta hilabeteko epean enplegu-eskaintza egokiari ukorik egin gabe egotea.

-LGStik gorako errentarik, dena delakorik eta datorrela datorrenetik, ez edukitzea. Ekarpren-prestazioa agortzen den datan 45 urte egin gabe baldin baditu, errenta horiek hurrengo eran zenbatuko dira: Familia-unitateko kide ezberdinen errenten batura aipatu kide-kopurutik zatituta ateratzen dena ezingo da izan LGSa baino handiagoa.

-Egoera hauetariko batean egotea:

a)Langabeziak duen ekarpen-prestazioa agorturik eta familia-erantzunkizunak ukaitea.

b)Gutxienez 12 hilabeteko ekarpen-prestazioa agortu zitzaion datan 45 urte baino gehiago ukaitea, nahiz eta familia-kargarik ukan ez.

c)Ekarpen-prestaziorako eskubiderik ez ukaitea sei hilabeteko kotizaziorik egin ez duelako, baldin hiru hilabetetan kotizatu badu edo familia-erantzunkizunik badu.

B.-Iraupena

Eskabidearen aurreko urtean kotizaturiko hilabete-kopuruaren baliokide den eskubidea izango du.

C.-Kopurua

Kopurua, LGSren %75a izango da.

# Prestazio

hauen araubidea.

## Eskabidearen tramitazioa.

### Epeak:

Beti-beti, lehenengo egin behar den gauza, langabetu bezala, enplegu-eskatzaille gisa inskribatzea da eta gehien ere 15 eguneko epean egitea, nahiz eta prestazio ezberdinak hartzeko eskabidea geroago egin ahal den edo egin beharko den.

Ekarpen-prestazioak, legezko langabezi egoeraren datatik hurrengo 15 egunen barruan eskatu behar dira ohizko helbideari dagokion IMENen bulegoan.

Sorospenen kasuan hamabost egun horiek, ekarpen-prestazioa agortzen denetik hasita kontatzen dira edo ekarpen-prestaziorako eskubiderik ez badago legezko langabezi egoeratik abiatu eta hilaletako itxaronaldiaren amaieratik hasita.

Langabezi egoera epai baten edo ebazpen administratibo baten bidez egiaztatu behar den kasuetan, 15 eguneko epe hori aipatu epai edo ebazpenaren berri ematen zaion egunetik hasten da kontatzen.



Bidezkotzat kalifikaturiko iraispen-epaiaren suposamenduetan, enplegu-eskatzaille gisako inskripzioa epaiaren berri eman eta hurrengo 15 egunetan egin behar da eta prestazioaren eskabidea egin behar da hiru hileko itxaronaldia egin eta hurrengo 15 egunetan.

Epe hauek (hala enplegu-eskatzaille gisako inskripzio soilari dagozkionak nola benetako eskabideei eurei dagozkienak) erresetatzen ez diren kasuan, legezko

## 6. Langabeziak duen babesa.

langabezi egoeraren datatik eskabidea benetan egin den datara arte igaro diren beste prestazio-egun galduko dira.

### **Aurkeztu behar den dokumentazioa:**

- Eskabidea bera behar bezala beteta (IMENen bulegoan ematen dute).

- Legezko langabezi egoera egiaztatzen duen dokumentua (epaia, adiskidetzak-akta, enpresaren jakinarazpen idatzia, ...).

- Azkenengo sei hilabeteetako kotizazio-ziurtagiria (Enplegu Bulegoak errazten du eta enpresak bete behar du).

- Azkenengo sei hilabeteetako TC2en kopia (enpresak eman behar ditu, nahiz eta kotizaturik eduki ez).


- Azkenengo nominaren kopia.

- NANren eta G.S.ko kartilaren kopia.

- INEMen bulegoeko beharrezkotzat jotzen dituzten gainerako dokumentu guztiak.

### **Prestazioaren ordainketa:**

INEMek ebazpena igortzen du lehenengo interesatuaren helbidera eta ondoren prestazioaren zenbatekoa sartzen du interesatu bakoitzaren kontu korrontean.



Lehenengo ordainketan 10 eguneko prestazioaren zenbatekoa gordetzen da; hau azkenengo ordainketan abonatuak zaio. Kobrantza, betetako hilabeteka egiten da interesatuak agintzen duen banku-entitatean.

Kobratzeko eskubidea, prestazioa kobratu beharreko datatik urtebetera galtzen da.

Kotizazioa enpresak eguneratu ez duen kasuan INEMek bere kontura ordaintzen du zati bat, erregularizazioa gertatu arte. Hau, lanikuskaritzan konpondu behar da.

## **Prestazioaren etendura.**

- Ezintasun Iragankorrean (EI) dagoen bitartean; kontratua iraungitzen baldin bada Elren prozesu horren barruan, langabeziak duen prestazioa kobratzen EI hori amaitzen denean hasiko da.

- Eskubidearen titularrak 359 eguneko edo gutxiagoko lana egiten duen bitartean.

- Atzerrira doanean sei hilabete baino denbora gutxiagorako.

- Soldadutzara edo gartzelara eramaten dutenean, izan ezik familia-kargak dituela eta LGSa baino handiagoa den familia-errentarik, ordea, ez.

- INEMek berak ezar ditzakeen zehapenen ondorioz; honek, gainera, berarekin eramango du

prestazioa, ezarritako zehapenaren berdinkide den hilabeteetan murriztea.

## **Prestazioaren iraungipena.**

- Emandako epealdia amaitu delako.

- 360 egun edo gehiago irauten duen lan bat delako, kontuan izanik "oraingo" langabezia eta "lehengo" langabeziaren aldeko aukerari buruz esandakoa.

- Egoitza atzerrira aldatu delako.

- Heriotza.

- Jubilazio-pentsioa edo elbarritasun iraunkorra (guztizkoa, erabatekoa edo elbarritasun larria) jasotzen hasi delako, elbarritasunaren kasuan langabeziak duen prestazioa hartzearen aldeko aukera egin daitekeelarik, baldin elbarritasunaren zenbatekoa baino handiagoa bada.

- Jubilazio-adinera heldu delako, pentsiorako eskubiderik ez dagoen kasuan salbu.

- Lan eta Gizarte Segurantzako Probintzi Zuzendaritzaren zehapena, langileak arau-hauste larria egin duela eta Lan Ikuskaritzak eskatuta.

- Enplegu egoki baten eskaintzari uko egiteagatik edo gizarte-lankidetzako lanetan, enplegu-

## 6. Langabeziak duen babesa.

programetan edo sustapen, pres-  
takuntza eta birmoldaketa ekintza-  
tean ez parte hartzeagatik, arrazoi  
justifikatua dagoenetan salbu.

- Eskubideari uko bere boron-  
datez egiteagatik.

### Incompatibilidad de la prestación por desempleo.

- Inoren kontura edo norbere  
kontura (autonomoak) egindako  
edozein lanekin, egun/zatizkoa  
denean salbu. Prestazioa kobrat-  
zen ari dela egun/zatizko lan bat  
lortzen baldin badu, prestazioaren  
kopurua gutxitu egiten da buru-  
tzen den egun/zatizko laneguna-  
ren proportzioan (egunean 2 ordu-  
ko lana, egunean bi ordu gutxiago-  
ko langabezia); egun osoko lan bat  
edukiko balu eta egun/zatizko  
beste bat eta egun/zatizko lana  
galduko balu, hau galtzeagatik ez  
luke edukiko prestaziorako esku-  
biderik; egun/zatizko bi lan eduki-

ko balitu eta horietako bat galduko  
balu, galdu duen egun/zatizko la-  
nagatik dagokion prestaziorako  
eskubidea ukanen du.

- G.S.ko pentsio edo prestazio-  
ak kobratzeagatik, pentsio edo  
prestazio horiek lanean egon ze-  
nean kobratu beharrekoak ziren  
kasuan izan ezik (adibidez: pen-  
tsioa GELgatik hartzen duenak eta  
aipatu pentsioarekin bateragarri  
den lan bat baldin badu, lan hori  
galtzeko kasuan, lanak sorturiko  
prestazioa hartzeko eskubidea  
ere ukanen du).

### Langile jaun andreen lege-hausteak eta zehapenak.

#### Arinak:

- Enplegu-erakundeetara (INEM,  
lanpostu-agentzia, ...) ez agertzea al-  
dez aurretik eskatuta arrazoi justifika-  
turik gabe. Hilabeteko prestazioaren  
etendura eta galerarekin zehatua.


- Ez justifikatzea zergatik ez den  
joan enplegu-erakundeek erraz-  
turiko enplegu-eskaintzetara.

#### Astunak:

- Preskuntza eta lanbide-birmol-  
daketa ekintzetan parte hartze-  
ari ezetz esatea, arrazoi justifikaturik  
gabe. Sei hilabeteko prestazioaren  
etendura eta galerarekin zehatua;  
berrerortzea egongo balitz, presta-  
zioaren iraungipena.

- Enplegu egokiari uko egitea  
edo gizarte-lankidetzako lanetan  
edo enplegu-programetan parte

Pentsioak. Pentsioak eta lan-  
gabezi-sariak kobratzea  
bateraezina izan daiteke.



hartzeari ezetz esatea, arrazoi justifikatua dagoenean izan ezik. Prestazioaren iraungipenarekin zigordua.

- Legez kontrako prestazioak hartzea eragiten duten egoera-aldaketan berririk ez ematea (familia, fiskal, ...)

### **Oso astunak:**

- Lan egin eta prestazioa kobratu batera egitea, egun/zatizko lanetan salbu. Hau, prestazioa kendu eta legez kontra harturiko kopuruak itzuli beharraz zehaturik dago eta gainera langabeziak edo enplegu-sustapenak dituzten prestazio guztiak hartzeko eskubiderik gabe uzten da urte batean.

- Prestazioa edo tokatzen zaion baino zenbateko handiagoa gezurrez eta maularaz lortzea. Hau ere, prestazioa kendu eta legez kontra harturiko kopuruak itzuli beharraz zehaturik dago eta gainera langabeziak edo enplegu-sustapenak dituzten prestazio guztiak hartzeko eskubiderik gabe uzten da urte batean.

- Enplegua sustatzeagatik langile jaun/andreek hartzen dituzten laguntzak ez aplikatzea edo desbideratzea. Berdin hau ere, prestazioa kendu eta legez kontra harturiko kopuruak itzuli beharraz zehaturik dago eta gainera langabeziak edo enplegu-sustapenak dituzten prestazio guztiak hartzeko eskubiderik gabe uzten da urte batean.


## 6. Langabeziak duen babesa.

### ANEXO 1

# LANGABEZIAK DUEN BABESA ARAUTZEN DUEN INDARREKO ARAUTEGIA.

(EBOan argitaraturiko dataren arabera ordenatuta)

- Ekainaren 19ko 81/1469 EDa (81-7-21eko EBOan), Nekazaritza Araubide Berezia sarturik dau den izaera finkoko inoren konturako langile jaun/andreengana hedatzeari buruzkoa.
- Apirilaren 27ko 83/1167 EDa (83-5-9ko EBOan), administrazio publikoetako zuzenbide administrazioaren araubideko enplegudun funtzionari jaun/andreengana eta aldi bateko pertsonalarengana hedatzeari buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 83/3237 EDa eta abenduaren 27ko 85/2405 EDa (83-12-30eko eta 86-1-25eko EBOak), elkarteko nekazaritza-enpleguko aldi baterakoentzako sorospenerari buruzkoa.
- Ekainaren 26ko Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko 84/27 Legearen 22.5 artikulua (84-7-28ko EBOan), Langabeziaren eta Enplegu Sustapenerako Fondeoak hartzearen arteko beteragarritasunari buruzkoa.
- Urriaren 17ko 84/1990 EDa (84-11-9ko EBOan), Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko 84/27 Legearen garapenari buruzkoa.
- Otsailaren 20ko 85/322 EDa (85-3-15eko EBOan), toki-administrazioetako zuzenbide administrazioaren araubideko enplegudun funtzionari jaun/andreengana eta aldi baterako pertsonalarengana hedatzeari buruzkoa.
- **Apirilaren 2ko 85/625 EDa (85-5-7ko eta 85-6-5eko EBOak), langabeziak duen babesaren garapenari buruzkoa.**
- Ekainaren 19ko 85/1043 EDa (85-7-2ko EBOan), lan elkartuko kooperatibetako kazkide langile jaun/andreengana hedatzen duena.
- Ekainaren 19ko 85/1044 EDa (85-7-2ko EBOan), prestazioaren ordainketa bakarraren modalitatea arautzen duena.
- Abenduaren 18ko 85/2363 EDa (85-12-21ko EBOan), justizi administrazioaren zerbitzuan dagoen bitarteko enpleguko pertsonalarengana hedatzen duena.
- Azaroaren 14ko 85/2394 EDa (86-11-21ko EBOan), sorospena iraupen luzeko Langile langabetu jaun/andre jakin batzuegana hedatzeari buruzkoa.
- Abenduaren 24ko 86/2621 EDa (86-12-30eko EBOan), treneko langile jaun/andre, futbol-jokalari jaun/andre, merkataritza-ordezkarri, toreatzaile jaun/andre eta artisten Araubide Bereziak osatzen zizutenak Araubide Orokorrean inkorporatzen direlako, guzti horien araubide hedatzeari buruzkoa.
- Apirilaren 3ko 87/474 EDa (87-4-10 EBOan), armadako pertsonal jakin batengana hedatzen duena.
- Apirilaren 7ko 88/8 Legea (88-4-15 EBOan), gizarte-ordenako lege-hauste eta zehapenei buruzkoa, langabeziari ukitzen dienak ere arautzen baititu.
- Azaroaren 8ko 90/1387 EDa (90-11-14ko eta 90-12-12ko EBOetan),



Nekazaritza Araubide Bereziko nekazaritzako aldi baterakoentzako sorospeneri buruzkoa.

- Uztailaren 30eko 92/22 Legeko bigarren Xedapen Gehigarria (92-??-??ko EBOan), ekainaren 19ko 85/1044ko EDan (85-7-2ko EBOan) biltzen den langile autonomo jaun/andreentzako prestazioaren ondanketa bakarria ezabatzen duena.

- Ekainaren 20ko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra, ELDko testua, (94-6-29ko EBOan).

- Abenduaren 30eko 94/42 Legeko hirugarren Azken Xedapena

(94-12-31ko EBOan), Aldi Bateko Ezintasuna eta Amatasuna baliokidetzat hartzen dituen, GSLOko 222. artikuluan arautzen duen langabeziarekiko baterakidetasunaren ondorioetarako.

- Otsailaren 24ko 95/272 EDa (95-2-25eko EBOan), Nekazaritza Araubide Bereziko nekazaritzako aldi baterakoentzako sorospeneren baldintzak aldatzen dituen.

- Martxoaren 23ko 95/4 Legea (96-3-24 EBOan), langabeziak dituen prestazioen ondorioetarako guraso-baimena eta amatasuna, altaegoeraren parekidetzat hartzen dituen.

- Urtarrilaren 19ko 96/42 EDa (96-2-17ko EBOan), kooperatibetako bazkideengana langabezi babesa hedatzeari buruzkoa.

- Urtarrilaren 19ko 96/43 EDa (96-2-20ko EBOan), Araudia.

- Martxoaren 1eko 96/396 RDa (96-4-2ko EBOan), langabezi eremuan ere zehapen-prozedura arautzen duena.

- Martxoaren 8ko 96/452 RDa (96-93ko EBOan), Nekazaritza Araubide Bereziko nekazaritzako aldi baterako jaun/andreen sorospeneri esku-bideak luzatzen dituen.

- Ekainaren 7ko 96/96 EDa (96-6-11ko EBOan), Nekazaritza Araubide Bereziko nekazaritzako aldi baterako jaun/andreentzako sorospeneri ondorioetarako lanegunak berdineteko sistema aldatzen duena.

- Abenduaren 30eko 96/12 Legea (96-12-31ko EBOan), 1997rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

- Urtarrilaren 10eko 96/5 EDa (97-1-11ko EBOan), nekazaritzako aldi baterako jaun/andreen sorospeneri buruzkoa.

# ariketak

# 6.

Langabeziak  
duen babesa.

## MODULUAZ GALDEKETA

---

- 1.- NORTZUK DIRA PRESTAZIO-MOTAREN BATERAKO ESKUBIDEA DUTENAK?  
ZEINTZUK DIRA BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK?
- 2.- NOIZ AMAITZEN DA PRESTAZIORAKO ESKUBIDEA?
- 3.- ZEINTZUK DIRA DITUEN MUGAK ETA ZEREN ARABERA KALKULATZEN DA LANGABEZIAREN KOPURUA?
- 4.- NOIZ ETETEN DA LANGABEZIAK DUEN PRESTAZIOA?
- 5.- NORTZUK DIRA LAGUNTZA PRESTAZIORAKO ESKUBIDEA DUTENAK?
- 6.- ZEIN KOPURU-MOTA HARTZEKO ESKUBIDEA DUTE?